



URDULIZ HAZKA ETA IRABAZI 2025

ZOKKETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

LEHENENGOA: ANTOLATZAILEA

Zozketa hau, ausazko konbinazioaren tipologian kokatzen dena, Urdulizko Merkatarien Elkartea antolatzen du, Urdulizko Udalaren laguntzarekin.

BIGARRENA: HELBURUA

Zozketa hau *Urduliz Hazka eta irabazi 2025* kanpainaren baitan dago, eta udalerriko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduetan erosketak sustatzea du helburu.

Kanpaina hau hainbat bide erabiliz zabalduko da: parte-hartzaile diren establezimenduetan bereizgarriak, informazio-orriak, buletinak, etab.

HIRUGARRENA: LURRALDE ETA DENBORALDIA

Kanpainari atxikitako establezimenduek banatuko dituzte zozketa-txartelak.

Parte hartzeko, beharrezkoa da rasca-gana txartelaren atzealdean ageri diren datu guztiak betetzea eta Urdulizko KULTUR ETXEAn kokatutako hauteskontzietan uztea (Aita Gotzon kalea, 16 bis - 48610 Urduliz). Orduategia: astelehenetik ostiralera 09:30-13:30 eta 16:00-20:00, larunbatetan 09:30 -14:00, 2025eko azaroaren 1etik 28ra bitartean.

Zozketa 2025eko azaroaren 30ean egingo da Urdulizko KULTUR ETXEAn; hala ere, Urdulizko Udala eta Urdulizko Merkatarien Elkartea data horiek aldatzeko eskubidea izango dute kanpainaren behar organizatiboak direla-eta.



LAUGARRENA: PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

18 urtetik gorako edozein pertsona fisikok parte hartu ahal izango du zozketan, baldin eta behar bezala betetako parte-hartze-txartela KULTUR ETXEAn kokatutako hautestontzietan uzten badu.

Derrigorrez bete beharreko datuak: izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa.

BOSGARRENA: PARTE HARTZEKO MUGAK

Ezin izango dute parte hartu: establezimendu atxikituen titularrek, langileek edo lehen mailako senideek, ez eta kanpainaren antolaketan parte hartzen duten enpresetako langileek eta horien lehen mailako senideek ere.

SEIGARRENA: SARIAK

Ondoko sariak zozketatuko dira:

- Lehen saria – 100 €-ko bonoa Lua Bakery-en
- Bigarren saria – 100 €-ko bonoa Mauratza Farmazia Urdulizen
- Hirugarren saria – 100 €-ko bonoa Bioestética Hiart Intxaurtietan
- Laugarren saria – 100 €-ko bonoa Mirari Estilistasen
- Bosgarren saria – 100 €-ko bonoa Charcutería Alegrian
- Seigarren saria – 100 €-ko bonoa Kami Etxean
- Zazpigarren saria – 100 €-ko bonoa Arbelaitz Tabernan
- Zortzigarren saria – 100 €-ko bonoa Harroin frutadendan
- Bederatzigarren saria – 100 €-ko bonoa Pizzeria Doner Kebabean

ZAZPIGARRENA: TXARTELEN BANAKETA

Parte-hartze-txartelak kanpainari atxikitako merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduen bidez banatuko dira. Establezimendu horiek bereizgarri baten bidez identifikatuko dira eta www.urdulizdendak.org webgunean eta bestelako euskarrietan zabalduko dira.

Txartelen banaketa 2025eko azaroaren 1etik 26ra egingo da, edo txartelak agortu arte.

ZORTZIGARRENA: PARTE HARTZEKO MEKANIKA

25.000 rasca-gana banatuko dira, eta establezimendu atxikiek erosketak egiten dituzten pertsonen emango dizkiete, erosketa-kopurua edozein dela ere, agortu arte.



Parte hartzeko derrigorrez bete beharreko datuak: izena, abizena, telefono-zenbakia eta posta elektronikoa.

Behin bete ondoren, txartelak KULTUR ETXEAn jarriko diren hautestontzietan utzi beharko dira (Aita Gotzon kalea, 16 bis - 48610 Urduliz).

BEDERATZIGARRENA: ZOZKETAREN MEKANIKA ETA SARIEN ESLEIPENA

Zozketa 2025eko azaroaren 30ean egingo da Urdulizko KULTUR ETXEAn.

Txartel bat aterako da eta baliozkoa den egiaztatuko da (datuak ondo beteta egotea). Txartela baliogabea bada, baztertuko da eta beste bat aterako da, baliozko bat lortu arte. Eragiketa hau sari bakoitzarentzat errepikatuko da.

Irabazleari telefono-dei baten bidez jakinaraziko zaio; erantzunik ez badago, SMS edo email bidez egingo da.

48 orduko epean erantzun beharko da; bestela, sarirako eskubidea galduko da eta beste pertsona bati esleituko zaio.

2025eko abenduaren 10a baino lehen erantzunik jasotzen ez bada, saria hutsik geratuko da. Sari bakoitzarentzat erreserba-txartelak aterako dira.

HAMARGARRENA: SARIEN EMATEA ETA BALDINTZAK

Saria onartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Sariaren jabetza eta gozatzeko eskubidea txartel sarituan datuak eman dituen pertsona fisikoari egokituko zaio.

Irabazleak saria 2025eko azaroaren 30ean edo pertsonalki adostutako egunean jaso beharko du.

Saria 2026ko abenduaren 31ra arte erabili ahal izango da.

Saria jasotzean, NANA egiaztatuko da. Arrazoi justifikaturen batengatik irabazlea joan ezin bada, beste pertsona bati baimena eman diezaioke, idatziz baimena eta NAN datuak adierazita.

HAMAUGARRENA: ESTABLEZIMENDUEN JUSTIFIKAZIOA

Zozketan saritutako bonuen zenbatekoa kobratzeko, establezimenduek Merkatarien Elkarteari bonuak, erosketa-tiketak eta/edo faktura aurkeztu behar dizkiote, BEZa barne. Fakturan kontu-zenbakia agertu beharko da, eta titularitate-ziurtagiria erantsi. Udalarekin, Foru Aldundiarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean izatea beharrezkoa izango da.

Dokumentazioa gehienez 2026ko abenduaren 31ra aurkeztu behar da.

Dokumentazioa osatu gabe badago, 10 eguneko epea izango da zuzentzeko. Bestela, eskubidea baztertutzat hartuko da.



HAMABIGARRENA: ESKUBIDEEN ERRESERBA

Udalak eta Urdulizko Merkatarien Elkartek sarien, irabazleen izen eta irudien publizitate-erabilera egiteko eskubidea izango dute, ordainsari ekonomikorik gabe.

Kanpainan zehar ateratako argazki eta bideoak Udalaren eta Merkatarien Elkartearen jabetzakoak izango dira eta egoki iritzitako euskarrietan erabiliko dira.

HAMAHIRUGARRENA: OINARRIEN GORDAILUA ETA ONARPENA

Kanpainan parte hartzeak oinarri hauen onarpen osoa dakar. Udalak erabakiko du oinarrietan aurreikusi gabeko edozein kontu.

HAMALAU GARRENA: DATUEN BABESA

Zozketa *Urduliz Hazka eta Irabazi 2025* kanpainari lotua dago.

Datuak Babesteko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Urdulizko Udalak (Elortza Plaza, 1, 48610) jakinarazten du emandako datuak konfidentzialtasun, sekretu eta osotasuna bermatzeko segurtasun-neurriekin tratatuko dituela.

Datu horiek hirugarrenei soilik laga ahal izango zaizkie helburu berberetarako.

Datuak indarrean dagoen legediak ezarritako epeetan gordeko dira. Helburua da kanpainaren kudeaketa eta komunikazioa. Kanpainan zehar argazkiak eta bideoak atera eta zabaldu ahal izango dira.

Eskubideak (sarbidea, zuzenketa, ezeztapena eta aurka egitea) erabiltzeko eskaerak bidali daitezke helbide elektroniko honetara: urduliz@activa.net, edo posta arruntez: KULTUR ETXEA, Aita Gotzon kalea, 16 bis - 48610 Urduliz.

Informazio gehigarria Udalaren webgunean kontsulta daiteke.

HAMABOSTGARRENA: KONTAKTUA

Informazio gehiagorako: urduliz@activa.net edo +652 762 802.

